BIZITEGI ERAIKINA — HERNANI 25

D MAILA



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1872

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi hiru jasodura atzeraeman (lehenak jatorrizko txapituladun teilatupea ordezten du). Behe oinean harlanduzko fatxada (oso eraldatua) eta goi oinetan entokatua, bao azpadurak nabarmenduta. Hormigoizko begiratoki zutabe bat du eskuinaldeko baoan, 1875eko eta 1893ko zurezko begiratokiak ordezten dituena. Apaingarriei, konposizioari, sekzioari, egileari eta datari dagokionez, eraikin mugakideen (Andia 7ren eta Hernani 25en) berdina da.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak (5., 6. eta 7. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen direnak –behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.